



ZARAUTZ - ZARAUTZ
Itsas zeharkaldia
Travesía a nado
Open water swimming
2021

travesiagetariazarautz.com

Igerilariaren gida

ZUZ

Zarautz-Ubiri-Zarautz

2021eko uztailaren 25a, igandea, 9:00tan

Distantzia: 3.000 m

Partaide kopurua: 1250

EGITARRAUA



Igerilariaren poltsa jasotzea

- 🕒 Uztailak 23 ostirala
16:00-20:00
Uztailak 24 larunbata
10:00-20:00
*Uztailak 25 igandea **7:30-8:00**

📍 Belauntzaran plaza
(Duke-Enea), Zarautz

Derrigorrezkoa da nortasun agiria eta COVID-19 deklarazio arduratsua aurkeztea igerilariaren poltsa jasotzeko.

Igerilariaren poltsa norberak jaso ezin duenean, hirugarren batek ere jaso ahal izango du parte-hartzailearen NANaren fotokopia erakutsita.

Transferentziaren ziurtagiria aurkeztea aholkatzen da, tramitea errazteko eta gerta daitezkeen intzidentziak azkarrago konpontzeko.

* Inskripzioa egiteko orduan zerbitzu hori kontratatu duten pertsonak soilik jaso ahal izango dute poltsa proben egunean bertan.

Igerilariaren poltsan aurkituko duzuen zinta itsaskorra itsatsi beharko duzue kontsignan utziko duzuen motxilan. Zinta horrek dortsal zenbakia du eta identifikazioa erraztuko du.

Orduraz kanpo ekarritako poltsak ez dira jasoko. Poltsetan baliozko objekturik edo objektu hauskorrik ez sartzea gomendatzen dizuegu. Antolatzaileak ez dira arduradun egingo objektu horiei gerta dakizkiekeen kalteez. Bestalde, parte-hartzaileak bere poltsa manipulatze baimena ematen du



Egitarrua eta Covid-19 protokoloa

- 🕒 Uztailak 25 igandea,
irteeraren aurretik

📍 Belauntzaran plaza (Duke-Enea), Zarautz

1. *Covid-19 deklarazio arduratsua baterik entregatu igerilariaren poltsa jasotzeko garaian*

2. Partaideak bere musukoa jarrita duela, sarreran gel hidroalkolikoarekin eskuak garbitu ondoren, igerilariaren poltsa jasoko du, antolakuntzak egingo duen ibilbidea errespetatuz, 6. puntuari adierazten dugun ordutegiaren barnean (PLANOA 1. puntua).

3. Probako unean, ordutegiak jarriko ditugu partaide guztiak talde ezberdinetan sailkatuz. Talde guztia sarreratik sartuko da eta dortsala jarri aurretik (PLANOA, 2. puntua) tenperatura hartuko zaio. Igerilariak 37 graduko tenperatura gaindituz gero, probatik kanpo geratuko da eta bestela aurrera egingo du, antolakuntzak burututako ibilbidea jarraituz.

4. PLANOKO 3. gunera iristean igerilaria aldatu egingo da, bere zorroa ano-gunean utziz, oraindik ere musukoa kendu gabe.

5. Antolakuntzak 5 minutu emango dizkie igerilari guztiei prestatzeko, denak prest daudenean hondartzako azken itxarote-gunera bidaliz (La Perla-ko aldatatik bideratuz) (PLANOA, 5. puntua).

6. Irteera unean izango da (PLANOA, 6. puntua) igerilariak musukoa kenduko dutenean, bertan egongo diren edukiontzietan botaz.

7. Helmugara iritsi eta berehala antolakuntzak musuko berri bat emango dio partaideari, bere gauza guztiak hartu eta antolakuntzaren egitarau guztiatik atera arte derrigor erabiliko duena.



Markaketa eta ordutegia

- 🕒 Uztailak 25 igandea,
irteeraren aurretik

📍 Belauntzaran plaza (Duke-Enea), informazio-puntua

Sorbaldan dortsala markatzea ezinbestekoa izango da. Partaide bakoitza marka jarrita etortzea gomendatzen da.

Markatzea Belauntzaran (Duke-Enea) Plazako 2. zonan egingo da (ikus planoak)

Markatze eta hasiera ordua:

Dortsalak	2. zonan (planoa) sartzeko ordutegia	Lasterketako irteera ordua
1-250	8:30	9:00
251-500	8:40	9:10
501-750	8:50	9:20
751-1000	9:00	9:30
1001-1250	9:10	9:40



Probaren hasiera eta ibilbidea

- 🕒 Uztailak 25 igandea,
goizeko 9:00tan

📍 Zarauzko hondartza,
Belauntzaran plazaren parean
(Duke-Enea)

Irteera eta helmuga Zarauzko hondartzan kokatuko dira, eta igerilariak Ubirainoko (Zarauztik Getariarako errepidean bigarren eta hirugarren tunelen arteko guneraino) joan-etorria egin beharko dute igerian, 3.000 metroko distantzia osatuz. Ibilbidea buiak ezkerretara utziaz egin beharko da, hondartzara iritsi baino lehenagoko buia ezik, hau eskuinera utzi beharko delarik (ikus ibilbidea beheko irudian). Gehienezko denbora 1 ordu eta 30 minutu.



Sari banaketa

- 🕒 Uztailak 25 igandea,
11:30tan

📍 Belauntzaran plaza (Duke-Enea), Zarautz

SARIAK:

• Sailkapen NAGUSIKO lehen 3 sailkatuak, gizonetako zein emakumezko kategorian:

- ~ 1. saria: garaikurra + Basatxerri urdaiazpikoa
- ~ 2. saria: garaikurra + Conservas Nardín lotea
- ~ 3. saria: garaikurra + Idiazabal gazta

• Sailkapen nagusiko lehen zarauztarra (edo Zarautz Balea Igeriketa taldekoa), gizonetako zein emakumezko kategorian:

- ~ 1. saria: garaikurra + Basatxerri urdaiazpikoa.

Partaidetza irekia da, lizentzia ez da derrigorrezkoa.

PLANOA

BELAUNTZARAN PLAZA (DUKE-ENEA)



ARAUDIA

Proban parte hartu ahal izateko, derrigorrezkoa da parte-hartzaile bakoitzak probaren araudia irakurtzea eta bertako klausula bakoitza betetzea.

1. DATA ETA LEKUA

2021ko uztailearen 25ean Zarautz-Ubiri-Zarautz.

2. ORDUA

ZUZ: 9:00 (3000m).

3. EGITARAU

3.1 Zarautz-Ubiri-Zarautz itsas zeharkaldia: 9:00etatik aurrera emango zaie IRTEERA hondartzatik, Belauntzaran plazaren azpian (Duke-Enea). 6 taldeen irteerak 10 minutuko tartearekin emango dira.

3.2 COVID-19 protokoloa: Belauntzaran plazan (Duke-Enea), malekoian (PLANOA ATXIKITURIK).

3.2.1 Covid-19 deklarazio arduratsua beterik entregatu igerilariaren poltsa jasotzeko garaian*

3.2.1 Partaideak bere musukoa jarrita duela, sarreran gel hidroalkolikoarekin eskuak garbitu ondoren, igerilariaren poltsa jasoko du, antolakuntzak egingo duen ibilbidea errespetatuz, 6. Puntuan adierazten dugun ordutegiaren barnean (PLANOA 1 puntua).

3.2.1 Probako unean, ordutegiak jarriko ditugu partaide guztiak talde ezberdinetan sailkatuz. Talde guztia sarreratik sartuko da eta dortsala jarri aurretik (PLANOA, 2 puntua) tenperatura hartuko zaio. Igerilariak 37 graduko tenperatura gaindituz gero, probatik kanpo geratuko da eta bestela aurrera egingo du, antolakuntzak burututako ibilbidea jarraituz.

3.2.1 PLANOKo 3 gunera iristean igerilaria aldatu egingo da, bere zorroa anoa-gunean utziz, oraindik ere musukoa kendu gabe.

3.2.1 Antolakuntzak 5 minutu emango dizkie igerilari guztiei prestatzeko, denak prest daudenean hondartzako azken itxarote-gunera bidaliz (La perla-ko aldapatik bideratuz) (PLANOA, 5 puntua).

3.2.1 Irteera unean izango da (PLANOA, 6 puntua) igerilariak musukoa kenduko dutenean, bertan egongo diren edukiontzietan botaz.

3.2.1 Helmugara iritsi eta berehala antolakuntzak musuko berri bat emango dio partaideari, bere gauza guztiak hartu eta antolakuntzaren egitarau guztitik atera arte derrigor erabiliko duena.

4. PARTAIDETZA

4.1 Zarautz -Ubiri-Zarautz kategoriak: 1500 ggb.

- Absolutua.
- Lehenengo zarautzitarra (edo Zarautz Balea igeriketa taldekoa).

Proba ospatzen den urteko abenduaren 31ean beteriko adinak hartuko dira kontutan kategoriak zehazteko orduan.

4.2 Zeharkaldiak:

- Zarautz-Ubiri-Zarautz zeharkaldian parte hartu dezakete 2007/12/31tik aurrera jaiotakoek.

4.3 OHARRA: 2007an jaiotakoek edozein itsas zeharkaldian izena emateko aukera izango dute, baina haien entrenatzaileek edo arduradunek erabaki beharko dute horrelako proba bat egiteko gai ote diren, beti ere irizpide teknikoak kontuan hartuta.

4.4 Zarautz-Ubiri-Zarautz zeharkaldian partaidetza irekia da, lizentzia EZ da derrigorrezkoa.

5. IZEN-EMATEAK

5.1 Izen-emateak www.kronoak.com web orriaren bidez egingo dira.

Izen-emate prozedura email batez azalduko zaie lehenengo urteko gordeta dutenei. 50. Getaria Zarautz proban izena eman zutenek aukeraketa hau egin beharko dute:

1. ZUZ frogan doan apuntatu.
2. Izen-ematearen %100 berreskuratu.

50. Zarautz Getaria Zarautz proban izena eman zutenek aukeraketa hau egin beharko dute:

5.2 Zarautz-Ubiri-Zarautz probako partaideak, lehenengo urtean Getaria-Zarautz itsas zeharkaldian izena eman zutenak dira, ez dira izen-emate berriak irekiko.

5.3 Dorsalak guztiz pertsonalak eta transferiezinak dira, eta ezingo ditu erabili izenik eman ez duen inork. Norbaitek bere plaza beste norbaiti transferitzen badio, dortsal-emailea izango da igerilari horrek ekitaldian izaten dituen istripuen arduraduna, baita hark gauzatu ditzakeen istripuena ere. Halako egoeretan, antolatzaileak ez dira gertatutako istripuen arduradun egingo. Antolatzaileek ikusten badute parte-hartzaileek bata besteari dortsala eman edo onartzen diotela, haiek zigortzeko ahalmena izango dute.

5.4 Getaria-Zarautz itsas zeharkaldian egiaztatzeko denborarik ez duten igerilariak, azken hiru urteetan (2017, 2018, 2019) Gipuzkoako distantzia luzeko txapelketarako baliagarriak diren edozein ur zeharkalditako denbora egiaztatu ahal izango dute. Gauzak horrela, berdin balio izango dute absolutu mailako nahiz master mailako txapelketa ofizialetako batean 1500 edo 800 metroko distantzian eginiko denboren egiaztagiriek, baita 3000 metro edo gehiagoko ur irekietako emaitzek ere.

5.5 Antolakuntza batzordeak ahalmena izango du egiaztagiri horiek balioztatzeko edo ez balioztatzeko eta irteera taldeak beharren arabera osatzeko, beti ere, beharren arabera eta igerilarien segurtasuna bermatuz. Aldi berean, antolakuntza batzordeak izena emandako partaideekiko onespenez eskubidea izango du.

6. IGERILARIAREN POLTSA JASOTZEA

6.1 Igerilariaren poltsak uztailearen 23an banatuko dira Belauntzaran plazan (Duke-Enea), arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara.

6.2 Igerilariaren poltsak uztailearen 24an banatuko dira Belauntzaran plazan (Duke-Enea): 10:00-20:00 bitartean.

ZUZ probako partaideek, 50. Getaria Zarautz proban beraien dortsala igandean eskuratzeko ordaindu zutenak, uztailearen 25ean 7:30etatik 8:00etara jasotzeko aukera izango dute.

6.3 Derrigorrezkoa da nortasun agiria eta COVID-19 deklarazio arduratsua aurkeztea igerilariaren poltsa jasotzeko.

6.4 Igerilariaren poltsa norberak jaso ezin duenean, hirugarren batek ere jaso ahal izango du parte-hartzailearen NANaren fotokopia erakutsita. Transferentziaren ziurtagiria aurkeztea aholkatzen da, tramitea errazteko eta gerta daitezkeen intzidentziak azkarrago konpontzeko.

7. IRTEERAK

7.1 Talde bakoitza 250 igerilarik osatuko dute gehienez. Irteeren artean 10 minutuko tartea egongo da.

TXANO LARANJA eramango dute dibertsitate funtzionala duten igerilariek.

Dorsalak	Lasterketako irteera ordua
1-250	9:00
251-500	9:10
501-750	9:20
751-1000	9:30
1001-1250	9:40

8. PROBA ETETEA. ARRISKU EZA

8.1 Antolakuntzak ibilbidea aldatzeko, irteera ordua aldatzeko edo proba beste egun batera aldatzeko ahalmena izango du. Irteera emango balitz, proba jokatzat emango litzateke, nahiz eta bidean bertan behera utzi. Proba bertan behera geratzen bada, izen-emateengatik ordaindutakoa ez da itzuliko.

8.2 Aldi berean COVID-19-aren ondorioz, Zarautz, proba egunaren astean tasa laranja badago (+300) proba bertan behera geratuko da, igerilariaren poltsa eskuragarri izanik eta izen-ematearen diru-itzulketak galduz.

9. SAILKAPENAK ETA SARIAK

ZARAUTZ-MOLLARRI-ZARAUTZ:

9.1 Sailkapen orokorraz gain, mailaren eta sexuaren arabera sailkapena ere izango da, Gipuzkoako Igeriketa Federazioko (GIF) ur irekiko ligarako ofiziala izango dena.

9.2 Garaikurra sailkapeneko lehenengo hiruentzat, emakumezko zein gizonezko mailan.

9.3 Garaikurra sailkapeneko lehen zarautzarentzat (edo Zarautz Balea Igeriketa taldekoa), emakumezko zein gizonezko mailan.

Sari-banaketa Belauntzaran plazaren (Duke-Enea) azpian izango da, 11:30 inguruan.

10. ZIGORRAK eta AZKEN AIPAMENA

10.1 Antolatzaileek zigorra jarri ahal izango dute frogaturiko edozein irregulartasunen aurrean, bai egiaztatutako denboren inguruan zein beste edozein arlotan. Gipuzkoako ur irekiko ligan parte hartzeko gehienezko denbora ordu 1 eta 30 minutukoa izango da Zarautz-Ubiri-Zarautz zeharkaldiaren kasuan. Segurtasuna bermatu nahian, parte-hartzaile guztiak muga horien azpitik osatzeko gaitasuna izatea aholkatzen da.

Bestalde, debekatuta egongo da hurrengo materialak erabiltzea:

- Tirak, "tape" edo tankerakoak.
- Erlojuak.
- Eskumuturrekoa, lepokoak edo tankerakoak.
- FINA araudia betetzen ez duten bainujantziak (trajeak).

Erreklamazio guztiak bakarka aztertuko dira.

Uraren temperatura 20 gradutik gorakoa bada, debekatuta egongo da neoprenoarekin igeri egitea. Uraren temperatura 18-20 gradu bitartekoa bada, aukerakoa izango da neoprenoa janztea, eta urak 18 gradu baino gutxiago baditu, derrigorrezkoa izango da.

10.2 Antolakuntzak lehiaketa honetarako lehiaketa zuzendari bat izendatuko du. Zuzendari hori izango da zeharkaldiko agintari nagusia lehiaketaren antolaketan eta lehenengo epaileari ez dagozkion beste eginkizunetan.

10.3 Edozein proban parte hartzen duzularik ere, sorbaldan dortsalaren zenbakia markatzea ezinbestekoa izango da.

10.4 Antolakuntzak ohartarazten du proba honek bere gogortasuna duela eta ur irekietako itsas zeharkaldiek dauzkaten arrisku guztiak dituela. Hori dela eta, prestakuntza egokia izatea eskatzen da, baita osasun egoera ona izatea ere. Beraz, duintasunez bukatzeko gai ez direnei izena ez emateko aholkatzen diegu.

Antolakuntza salbuetsita geratzen da zeharkaldiak parte-hartzaileei eragin diezaikeen kalte eta erantzukizunetatik. Izena ematen duten unetik beraiek izango dira bere buruaren arduradun.

10.5 Araudi honetan aurreikusten ez den guztiari dagokionez, honakoak hartuko dira kontuan: Gipuzkoako Igeriketa Federazioaren (GIF) eta Igeriketako Espainiako Federazioaren (RFEN) ur irekietako lehiaketaren araudia eta Nazioarteko Igeriketa Federazioaren (FINA) ur irekietako araudi ofiziala.

10.6 Sailkapeneko datuetan (izena eta abizena) zein komunikazioko edozein arlotan (argazkia) bere pribatutasuna mantendu nahi duen orok, jar dadila harremanetan antolakuntzarekin.

ZARAUTZ, 2021

Babesle nagusia

LEKU-ONA
GRUPO Global Solutions

Babesleak



Babesle instituzionalak



Antolatzailea



Laguntzaileak

